

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 661

*AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 8koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita «Fundación Bancaria Vital – Vital Banku Fundazioa» fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa bat, fundazioaren izenari dagokiona.*

Ikusi eta aztertu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskaeraren espedientea. Honako aurrekari hauek ditu oinarri:

#### AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2019ko abenduaren 4an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko «Fundación Bancaria Vital – Vital Banku Fundazioa» izeneko fundazioaren estatutuen 1. artikuluan egindako aldaketa, fundazioaren izenari dagokiona. 2019ko azaroaren 28an, fundazioaren patronatuak erabaki zuen aldaketa hori egitea. Espedientean jasotako agiriak erantsi zitzaizkion eskabide-orriari.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek espedientea aztertu dute, eta ondoren ebazpen-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutu-aldaketaren espedientea agindu bidez ematea. Hala aurreikusita dago hiru dekretu hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 6.1.m) artikulua; Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Bigarrena.– Espediente honetan, beharrezkoak ziren datu eta agiri guztiak aurkeztu dira, hots, bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta lehenengo xedapen iragankorrean eta uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 41. artikuluan ezarritako betekizunak (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen da). Beraz, aplikatu beharreko legezko eta erregelamenduzko manuen arabera aldatu dira estatutuak.

Aipatutako manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu hau ematen den eguneko datarekin, Gasteizko (Araba)«Fundación Bancaria Vital - Vital Banku Fundazioa» izeneko fundazioaren estatutuen 1. artikulua aldaketa, izenari dagokiona, fundazioaren patronatuak 2019ko abenduaren 4an erabakitakoa. 2019ko abenduaren 4an Ignacio J. Gomeza Eleizalde notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan (protokolo-zenbakia: 1.909) jasorik dagoen moduan egingo da inskripzioa.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 8a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.